

ELA OSAKIDETZA

LPE - 2008

HAUTAGAI ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Urtarrilaren 26an Osakidetzak ohar bat jarri du bere web-orrian. Ohar horren bidez jakitera eman du hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak web-orrian argitaratu direla. Zerrenda horietan 21 kategoria biltzen dira, LPE-2008ari dagozkionak, abenduaren 3ko 232 zk.ko EHAAn argitaratu zen deialdian jasotzen zirenak.

Behin-behineko zerrenda horiek Osakidetzaren web-orrian dituzu ikusgai. Horretarako, "hautaketa-prozesua" aukeran klik egin, eta izena emanda zauden kategoriak aukeratu behar dituzu edo, bestela, nabigatzailean hurrengo helbidea sartu eta zuzenean iritsiko zara: <http://ope2008.osakidetza.net/aOPE2008/eus/ProcesoSelectivo/Proceso.jsp>

ERREKLAMAZIO-EPEA:

- Epea **10 egun baliodunekoa** izango da, **2009ko urtarrilaren 27tik otsailaren 6ra**, biak barne. Erreklamazioa Osakidetzaren web-orrian dakarren inprimaki-ereduari jarraiki egingo da, eta Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendariari aurkeztuko zaio.

NORK DU PROBETARA AURKEZTERIK?

- Proben 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera, aurkeztea izango dute erabaki hauen eranskinean onartuen artean agertzen direnek. Eta bazter utzitako gisa agertuta ere, onartuen eta baztertuen zerrendari gora jotzeko errekurtoa jarri izana erakusten dutenek ere aukera izango dute parte hartzeko; baina errekurtoa ebazten duen erabaki irmoaren menpe geratuko dira.

**ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, GALDETU ZURE ATAL
SINDIKALEAN EDO ELA-REN EGOITZA NAGUSIETAN
EDO BEGIRATU GURE WEB-ORRIAN: www.ela-sindikatua.org**